

Joxerra Aizpurua

INDUSTRIA INGENIARIA

Nola azaldu...

Eguzkia ekialdean irten eta mendebaldean gordetzen da. Nola azaldu hiru urteko gure alabari eguzkia ez dela gurekiko higitzen ari, baizik eta gu garela eguzkiarekiko higitzen ari garenak: "Karbono dioxidoa atmosferara isurtzen ari gara eta ondorioz, lurrak askatzen duen beroak ezin du atmosferara ihes egin eta lurra berotzen ari da; urtaroak aldatzen ari dira, glaziarrak eta poloak urtzen ari dira, lehorteak ugariagoak dira, eta abar". Zer egin horren aurrean? Energia alternatiboak, energia nuklearra, birziklapena...

Aurreko paragrafoan esandakoa nola hala konta diezaioket erraz xamar nire alabari. Baina esango diodana egia al da? Edota gure begiek ikusten dutenaren interpretazioetako bat baino ez da?

Gauden gizartean gai guztiak dira hizketa gai, datu pilo bat ematen dira eta berehala egiazat hartzen dira, ondorio politiko, sozial eta estrategikoak izaten dira, eta inork gutxik zalantzan jartzen ditu gizartean topiko klimatiko bihurtu direnak.

Ikerketa ugari ari dira garatzen eta mundu osoko ikerlariak kezkatuta daude aldaketa klimatikoaren gaiarekin. Ikerketa horien artean badago lag hauts kosmikoei baino asko sortzen laguntzen dutela aipatzen duena, baina eguzkiaren orain-



ALBERTO ELOSEGI

go jarduera handia denez, hauts kosmikoei ez omen dira gure atmosferara ailegatzen eta ondorioz lainoen sorrera oztopatzen da. Hori horrela bada euri gutxiago egitearena ez litza-teke karbono dioxidoaren eragin soilak izango ezta?

Gauza eta prozesu asko dago begien bistaz bakarrik aztertzerik ezin dena eta aldaketa klimatikoa horietako bat baino ez da. Datu batzuk agerian geratu dira azken hogeita hamar urteotan eta badirudi gure ingurugiroko parametro naturalak eraldatzen ari garela. Baieztapen hori nahikoa da denok erne jartzeko eta hainbat neurri orokor hartu ahal izateko. Baina hemen hasten dira bainak. Mende erdi bat daramagu munduko ingurugiroa erasotzen eta orain ez bakarrik herrialde aberatsoi, baita garapen bidean daudenei mugak ezarri dizkiegu; denontzat berdin, nahiz eta batzuk abantaila izugarria hartu dugun azken mendean. Gainera sistema ez-poluitzaileen garapena herrialde aberatsotan gertatu denez, prest gaude gure teknologia garapen bidean dauden herrialdeei saltzeko; beraz, gure nagusitasuna sendotzen segitzen dugu eta txanda honetan gainera "mundua salbatzeko".

Nola azaldu guzti hau begien bistaz baino ikusten ez duenari? ■

« Prest gaude gure teknologia garapen bidean dauden herrialdeei saltzeko; beraz, gure nagusitasuna sendotzen segitzen dugu eta txanda honetan gainera 'mundua salbatzeko' »

TXANDAN

Andoni Mujika



Horrek baietza eta ezetza, biak batera, dakartza. Gai bati ebazten zaion gehienetan bezala kategorizazioak behar. Badago espezie bat, enpresa eta politika munduan, eskrupulu tanta

barik beren helburuak lortzeko inguruko edozer suntsitzeko prest dagoena, ez dio inongo ikararik jardun-bide horri. Beste adibide bat, normalean emaitza ukigarriagoa eskuratzeko erabiltzen da, gezurraren orbitan biraka dabilena: iluntasuntxoak, gozotasun faltsua, sedukzioa, maitasun dantzak... Hurrengo bat biolentzia politikoarena da. Badakit norabide ezberdinetan ematen dela eta abar, baina kezka

Edozein bitarteko?

ematen dit euskaldunok urteetan zehar erabili izan baitugu. Kezka, batetik, sufrimendu

neurtezina eta suntsitzailea eragiten duelako, eta bestetik, egiteko modua, kultura jakin bat, irakatsi digulako. Eta praktikan jartzen dugu, *intimidazioak* balorea balu bezala. Kezkatu egiten nau horrek geure herriaz eta geure etorkizuneko pertsonekin gabiltzalako; eta ez da pedagogia ona.

Zein bitarteko *noiz-ari* neurria hartzen ikasi beharko da, eta jakin beharko dugu, *eskrupulubako* bitartekoa noiz den norberaren zein norberetarren zoriona eta autodefentsa bermatzeko, eta noiz, kakazteko. Eta egurra, tiburoi barie-tate guztiei. ■